

## Gizarte enplegu babestua.

**Prestazio mota:** Bermatu gabekoa.

**Baliabide mota:** Behin bakarrik jaso beharreko diru-laguntza.

**Baliabidearen xedea:** Diru-laguntza, toki entitateek edo irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateek bultzatutako proiektuak, interes kolektibokoak eta irabazi-asmorik gabekoak, bazterketa sozialean dauden pertsonak aldi baterako kontratatzen badituzte eta haien xedea bada pertsona horiei bide ematea gizarteratzeko aukerak enplegu normalizatuaren bidez hobetzen dituzten ohitura eta trebetasunak ikas ditzaten.

**Onuradunak:** Toki entitateak edo irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenekoak, bazterketa sozialeko egoeran edo arriskuan dauden eta enplegua eskuratu edo/eta gordetzeko arazoak dituzten pertsonak kontratatzeke proiektuak sustatzen dituztenak.

### Jasotzeko baldintzak:

Programaren erabiltzaileak:

- Lanerako adina izatea.
- Lanerako baimena edukitzea (etorkinen kasuan).
- Oinarrizko gizarte zerbitzuarekin eta gizarteratze eta laneratze lantaldearekin gizarteratze eta laneratze itun bat izenpetua izan beharko dute.

Diruz lagunduko beharreko proiektuak:

- Kontratu normalizatuak, aldi baterakoak, gehienez ere hamabi hilabetekoak eta 3 orduko gutxieneko lanaldiarekin.
- Komunitateari onura ekartzen dioten lanak, enplegurako eta, aurrerago, lanpostu normalizatuak eskuratzeko aukerak hobetzeko xedearekin.
- Emakumeen enplegua sustatzen duten ekintzei interes berezia ematea.
- Akonpainamendu soziala, laguntzako langileen eskutik.
- Lan trebetasunak eta gaitasun sozialak eta lanaren aurrekoak bereganatzeko prestakuntza jarduerak.

Entitate sustatzaileak:

- Irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateek gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

